

Generoari eta garapenari buruzko baieztapenak (Lana taldeka eta analisia talde guztiak bilduta)

Denbora: 45 minutu.

Gida

- Txarteletako baieztapen bakoitza Hegoaldeko emakumeei laguntzeko politika baten ikuspuntuari dagokio. (*)
- Eskatu taldeei txartel bakoitzeko ikuspuntua identifika dezatela. Nekeza egin dakieke parte hartzaileei ados jartzea. Moderatzaileak saiatu behar du parte hartzaileak ez daitezen hitzen gainean eztabaidatzen aritu, baizik eta ideien gainean.
- Ondorioak talde guztiak bilduta aurkeztu eta horien arrazoiak argudiatu.

(*)

A. Txiroetan txiroen direnei lagundu nahi diegu. Emakume txiroek desabantaila zehatzak dauzkate, beraz, laguntza berezia jaso beharko lukete.

A. Ongizatea

Emakumeei gaitz egiten zaie gizon artean hitz egitea (edozein gizartetan). Beraz, garrantzitsua da emakumeen ahotsa entzunarazteko moduak bilatzea.

B. Norbere egoeraren kontrola berreskuratzea.

C. Emakumeek nekazaritza arloko lanik gehiena egiten dute. Beraz, emakumeek edozein nekazaritza proiektutan esku hartu behar dute, horrek arrakasta izango badu.

C. Eraginkortasuna

D. Emakumeei laguntzeko programa guztiek izan behar dute osagairen bat diru sarrerak sortzeko. Helburua izan behar da programa horiek beren kabuz finantzatzea.

D. Txirotasunaren aurkako ikuspuntua

E. Benetako garapenak bide eman behar die emakumeei aukerak egin eta beren bizitzetan aldaketa esanguratsuak egiteko.

E. Norbere egoeraren kontrola berreskuratzea

F. Iparraldeko GKEtan burutzen diren Aukera Berdintasunaren aldeko politikek eta praktikek lotura zuzena izan behar dute Hegoaldeko herrialdeetan bultzatzen ditugun proiektuekin, eta horiek jarraibideak eman diezazkiekete haiei.

F. Aukera berdintasuna

G. Emakumeak, emazte eta ama gisa, familiaren osasunaren eta ongizatearen arduradun dira. Beraz, haiekin aritu behar dugu elkarlanean, familia osoari lagun diezaioten.

G. Ongizatea

H. Zerbitzu komunaletako borondatezko programetan emakumeek rol nagusia izatea da bidea, garapenean eta zuzentasunean esku hartze handiagoa izan dezaten.

H. Eraginkortasuna

I. Kultura guztietan, emakumeak gizonen mendeko dira. Helburua desberdintasuna eta mendekotasuna ezabatzea izan behar da.

I. Aukera berdintasuna

J. Emakumeek hezkuntza hobea jasoko balute, gizonen pare jar litezke ekonomikoki buruaski izatea lortzeko.

J. Txirotasunaren aurkako ikuspuntua

Jatorria: Manual de Capacitación en Género de Oxfam. 2. liburukia. Lima: Oxfam eta Flora Tristán.